

IL AZALPEN PROBA • <i>Pijama marradunaz jantzitako mutikoa</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Baina, gaur, ez zirudien ezerk haserreaziko zuenik aita (zeren eta bere buruaz zintzo jokatzekotan, Brunok onartu beharra baitzeukan gutxitan haserretu ohi zela aita; egoeratik at, isil-isilik eta hotz geratu ohi zen, eta azkenean berak izaten zuen beti arrazoi, nolabait); eta, semeari oihuka erantzun orde zedo etxe osoan haren atzetik ibili orde, burua astindu zuen bakarrik, eta eztabaida hura bere hartan amaitutzat ematen zuela adierazi.

—Zoaz zeure gelara, Bruno —esan zion, hain isil-misilka esan ere, non Brunok ondotox baitzekien benetan ari zela; eta besaulkitik jaiki zen, malkoak begietaratzen zitzaizkiolarik, porrot egin izanaren adierazgarri. Aterantz egin zuen, bada, baina hura zabaldu aurretik, jiratu egin zen, eta azken galdera bat egin nahi izan zion aitari.

—Aita? —hasi zitzaion.

—Bruno, ez dizut berriro... —ekin zion aitak, haserrekor.

—Ez da lehengoari buruz —esan zion Brunok, berehala—. Beste galdera bat egin nahi dizut.

IL AZALPEN PROBA • <i>Pijama marradunaz jantzitako mutikoa</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta marginak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Ez dago hain txarto ere —esan zuen Pavelek ahots ezti eta atseginez—. Are eta okerragoa da, den baino mingarriagoa dela uste izatea.

Zentzuzkoa iritzi zion Brunok hark esandakoari, eta eutsi egin zion berriro ere “ai, oi, ei!” aieneka hasteko gogoari. Eta, likido berdeaz zauria igurzten amaitu orduko, lotailu bat hartu zuen Pavelek lehen laguntzako botika-kutxatik, eta ebakia lotu zion.

—Horra —esan zion—. Askoz ere hobeto, ezta?

Baietz egin nion buruaz Brunok, apur bat lotsaturik ere bai, nahi bezain adoretu jokatu ez zuelako.

—Eskerrik asko! —esan zion.

—Ez horregatik —ihardetsi zion Pavelek—. Eta, orain, zaude hortxe geldi eta eserita apur batean, berriro ere oinez ibiltzen hasi aurretik, ados? Zauria baretze aldera. Eta ez, gero, zinbulu-zanbulura hurbildu ere egin egun osoan.

Baietz egin zion buruaz Brunok, aulki gainean zangoa luze-luze eginda zeukala, eta, Pavel, harraskara itzuli zen oster, eta arreta handiz garbitu zituen eskuak, azazkal atzeak ere ondo marruskatu zituen burdin harizko eskuila batekin; eta behin haiek lehortu eta gero, patatak zuritzen hasi zen berriro.

IL AZALPEN PROBA • *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa*

Kodea* Taldea

*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta marginak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Bihar itzuliko naiz –oihu egin zion Brunok mutikoari, joan bazihoala, baina Shmuelek ez zion ihardetsi; egia esateko, lasterka bizian hasia zen esparru alderantz, Bruno hantxe bere kasa utzita.

Bruno, berriz, etxerantz abiatu zen, erabaki baitzuen nahikoa esplorazio izan zuela egun baterako. Gertaturikoak zeharo asaldatuta zihoan, eta irrikaz zegoen den-dena kontatzeko amari eta aitari, eta Greteli –bekaizkeriaren bekaizkeriaz jo eta lehertzen ez bazen!–, eta Mariari, eta sukaldariari, eta Larsi; arratsalde hartako abenturari buruzko xehetasun guztiak kontatu nahi zizkien, eta bere lagun berriaren eta haren izen bitxiaren ingurukoak, eta baita jaiotegun berekoak zirelako kontua ere. Baina etxera zenbat eta gehiago hurbildu, orduan eta pentsatzenago zuen ez ote zen burutazio txarra izango agian.

Azken batean, arrazoitu zuen Brunok, agian ez zuten nahiko aurrerantzean mutiko biak elkarren lagun izaterik, eta, hala, agian ez zioten utziko hara kanporaino joaten ere. Etxearen aurrealdeko atea zeharkatu eta sukaldeko labearen afaritarako erretzen ari ziren behikiaren usain gozoa aditu ahala, ordea, erabaki zuen hobe izango zela istorio hura guztia beretzat bakarrik gordetzea oraingoan, eta hari buruz txintik ez esatea inortxori ere. Beraren sekretua izango zen bakarrik. Tira, berarena eta Shmuelena.

IL AZALPEN PROBA • <i>Pijama marradunaz jantzitako mutikoa</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

HURRENGO EGUNETAN, arratsaldero-arratsaldero itzuli zen Bruno, burdin hesiaren pareko elkargunera, baina Shmuel ez zen behin batean ere agertu. Handik ia astebetara-edo Bruno erabat sinetsita zegoen, egin zuen izugarrikeria zela-eta, hark ez ziola sekula barkatuko; baina zazpigarren arratsaldean pozak airean jarri zen berriro ere hantxe aurkitu zuelako Shmuel, lurrian eserita, zangoak gurutzatuak zituela, eta oinpeko hautsari begira-begira.

—Shmuel –esan zuen, harengana lasterka joan eta ondoan esertzen zitzaiola, negar egiteko zorian ia, lasaiturik eta damaturik—. Izugarri sentitzen dut, Shmuel. Ez dakit zergatik jokatu nuen hala. Esadazu barkatzen didazula.

—Ondo da –esan zuen Shmuelek, Brunori gorantz begiratzen ziola. Beltzune eta ubeldura mordoa ageri zuen aurpegian, eta, haiek ikusirik, atsekabezko keinua egin zuen orduan Brunok, desenkusa eta barkamen kontuez zeharo ahaztuta.

—Zer gertatu zaizu? –galdetu zion, eta ez zen geratu hark zer erantzungo zain—. Bizikletan zabiltzala izan al da?